

# Udal talde politikoaren iritzia



## GURE AMETSA GETXO SUSTATZEN JARRAITZEA DA, ETA ZUREA?

Hiru urte igaro dira jada Getxoko EAJ-PNVk, Amaia Aguirre buru duen talde izugarriarekin, udal-hauteskundeetan herritarren babes izugarria jaso zutenetik. Hiru urte eta mundu-pandemia bat igaro ondoren, esan dezakegu Eusko Alderdi Jeltzaleak bere hitza bete duela; izan ere, Getxoko EAJ-PNV herritarrekin hartutako konpromisoak betetzen dabil, bai eta beharizan berriei erantzuten ere.

Lana, konfiantza, zintzotasuna, erantzukizuna, zorrozatasuna eta konpromisoa gure zerbitzu publikoko eguneroko ekintzan islatzen ditugun balioak dira. Kate baten katebegiak gara, 127 urte baino gehiagoko alderdi batean. Getxo, kohesionatua eta sozialki antziza, berdintasunarekiko, zahartze aktiboarekiko eta, besteak beste, kulturartekotasunarekiko konpromiso argiak dituena. Getxo, balio-sorkuntzaren eta ekonomia-berrikuntzaren erdigune, irristatze-kirolen industrietan arreta jartzen duena. Getxo, kirolaren hiria Bizkaiko badian, modalitate guztietako klubekin eta mota guztietako erakundeekin elkarlanean aritzen dena.



Getxo, emozioen eta sormeneko abangoardiaren antzoki, Muxikebarri, RKE eta Musika Eskola izanik Getxoko nahiz nazioarteko kultura-eragileen sorkuntzarako eta parte-

hartzerako espazioak.

Getxo, hiri-ingurune segurua, jasangarria eta denok gozaten dugun ingurumenarekiko errespetua duena. Getxo, mugikortasunari eta irisgarritasuna-

ri dagokienez erreferentea, bidegorri eta aparkalekuen aldeko apustu argia egiten duena. Getxo, etxebizitzarekiko apustu argia egiten duena aurkeztar gauden hiri-antolamenduko plan orokorrean egindako hiriaren diseinu berriaren bidez. Getxo, gardentasunaren eta partaidetzaren eredu etengabe egiten diren prozesuetan, zeinen bitartez proiektu berrietan partaide baikara. Getxo, kosmopolita eta Euskadin errota, hiri zoragarria eta ilusio handien sorlekua: HAPoA; Thinking Fadura; Romoko belaunaldi arteko zentroa; ItsaHUB; Muxikebarri, arte, kultura eta biltzarren gune; geroz eta irisgarriagoa den Areeta-Romo berria, Zugatzarte etorbidearekin edo etorkizuneko Xake plazarekin; beste auzo batzuetan egindako aparkalekuak, hala nola Gainza eta Ibarbegoakoak; eta udala XXI. mendeko abangoardia izateko modernizazio-prozesua. Horiek guztiak duela hiru urte Getxoko EAJ-PNV taldeak betetzen dituen konpromisoak dira. Hitza betetzen dugulako eta urtebete barru etxeko lanak eginda aurkeztuko garelako Getxoko biztanleen azterketara.



## METROA LURPERATZEA GETXON



Gaur egun, 5 km-ko metroko errailak daude Getxo udalerrin osoan zehar, baita gainazalean dauden lau geltoki ere: Gobela, Neguri, Aiboa eta Bidezabal. Metroa guztiz lurperatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko unea heldu dela uste dugu. Hala, Areetatik Bidezabalera doazen metro-erreak hartzen duten espazioa berreskuratuko genuke eta hirigintza-eraldaketa lortuko genuke, plaza

gehiago, berdegune gehiago, pasealeku gehiago, jolastoki gehiago eta bidegorri gehiago izateko. Halaber, auzoen arteko mugak kenduko lirateke, bai eta gainazaletik doan metrotik hurbil dauden biztanleek jasaten duten zarataren eragina ere. Dirua egon badago, Next Generation funtsak baititugu, baina gobernu-taldeak borondate politikoa erakutsi behar du. #esnatuGetxo



## HAPOREN INGURUKO HERRI-KONTSULTA NAHI DUGU

Maiatzeko osoko bilkuran EH Bilduk proposatu zuen Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorrarekin herri-kontsulta bat antolatzea. Izan ere, laster HAPoaren aurrerapena onartuko du Udalak, eta auzokideok aukera izan beharko genuke modu zuzenean gai honetaz erabakitzeke, bertan gure herriaren etorkizuna zehaztuko delako: hirigintza-eredua, eraikiko den etxebizitza kopurua, mugikortasuna, landagune eta inguru berdeak...

Baina EAJk eta PSEk gure proposamenaren kontra bozkatu zuten, proposamena ez zen onartu. Jakin badakigu Udala ez dagoela behartuta herri-kontsultak antolatzera HAPo onartzeko; baina jakin badakigu ere legeak ez duela horretarako trabarik

jartzen. Borondate politikoa baino ez da behar.

Herri-kontsultak antolatzea parte-hartze ariketarik gorena da. Egia da herritarrek hauteskundeetan erabakitzen dutela zein alderdi eta zein programa bozkatu; baina plan honetan agertuko diren alde gehienak ez dira alderdi politikoaren programetan agertzen, herritarrek ez dute honen inguruan euren iritzia emateko aukerarik izan. Ez diezaiogun beldurrik izan herriaren hitzari. Getxoko etorkizuna zehaztuko duten planak ezin dira bakarrik udal bulegoetan erabaki. Herritarren parte-hartzea ezin da mugatu Boletín Ofizialean agertzen den informazioari, edota legeak behartuta egiten diren bizpahiru bileretara. Presioa egiten jarraituko dugu!



## INGURUMENAREKIKO ETA TOKIKO AGENDA 2030EKIKO KONPROMISOA

Ekainaren 5ean izango den Ingurumenaren Mundu Egurenaren harira, Getxok "Aste Berdea" deritzona egingo du laster, eta ekimen horren bitartez **klima aldaketa gelditzeko eta gure ingurune naturala babesteko** dugun konpromisoa sendoa aldarrikatu nahi dugu. Izan ere, **ingurumenaren jasangarritasuna** legegintzaldi-planean sustatu genituen hiriko **hamar ardatz estrategikoetako bat da**. Oreak soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa mantendu behar dugu, udalerrian jarraipen jasangarria bermatze aldera. Era berean, **mugikortasun jasangarriaren esparruan erreferente** izatearen alde gaude; horretarako,

isurketa gutxiko guneak sortu ditugu eta oinezkoentzako atseginagoak diren espazioak sustatu ditugu. Horrez gain, gobernu-taldeko kideok bidegorri-sare handi bat sortzeko apustua egin dugu, eta garraio publikoaren nahiz bizikleten erabilera bultzatzen dugu. **Tokiko Agenda 2030eko ekintza-plana (2020-2023)** idaztearen garrantzia nabarmendu nahi dugu, **ingurumen-politikak politika ekonomikoak eta sozialak uztartzen** dituen plan estrategikoa baita. Alderdi sozialistarentzat oso garrantzitsua da balio naturalak zaintzea, eta biodibertsitatea nahiz paisaia etengabe erroka dira Getxorentzat.



## GETXOKO FAMILIEKIN ETA HAURREKIN

Azken osoko bilkuran guraso bakarrek familiak aintzatesteko eta babes-teko gure mozioa onetsi zen. Udal honetako Getxoko familiak zaintzeko duen moduak kezkatzen gaitu, eta zehazki San Martin eskolako familien egoerak. Eskola itxiko dutela eta Zabala eskolara lekualdatuko direla dioten zurrumurruengatik kezkatuta daude. Umeen kalterako izango litzateke hori; izan ere, ikasgelak batzea edo

jolastokia txikiagotzea eragingo luke. Horrez gain, hamabost urte baino gehiago daramatzate egiturari lotutako hobekuntzak egiteko eskatzen, bai eta aterpe bat jartzeko ere, eguraldi txarra dagoenean umeak bertan egon daitezten. Alabaina, erakundeek bata besteari pasatzen diote eskumenen pilota, eta bitartean ziurgabetasun-egoeran jarraitzen dute familiek. [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus)